

# GENERO IKUSPEGIA LAUDIOKO HIRIGINTZAN INTEGRATZEA

2017KO APIRILA

# HELBURU OROKORRA

Genero-ikuspegia hirigintza-plangintza arautzen duen araudian integratzea, parte-hartze prozesu baten bitartez, proposamenak jaso eta HAPO aldaketan sartzeko.

Genero-ikuspegiak aztertzen du arauak nola betikitzen dituen edo eraldatzen gizon-emakumeen baldintzak, egoerak eta jarrerak, eta, beraz, deskribatu egiten du hiriaren antolamenduak zer nolako eragina duen berdintasunean.

- Udal kudeaketa.
- Espazio publikoa: Udalerrri eredia eta espazio publikoa: espazio publikoaren gaitasun publikoa; oinezkoentzako kaleak eta ibilbideak, seinaleak eta orientazioa, eta hiri-altzariak.
- Ekipamenduen antolamendua eta kontziliazioan laguntzeko horien erabilerak eta zerbitzuak: hezkuntzarakoak, osasunerakoak, gizarte-zerbitzuetakoak, kulturalak, kirolarekin lotutakoak.
- Garraiobideen ezaugarriak: ekipamendu nagusietarainoko distantzia eta iristeko modua, garraiobide motak, ezaugarriak eta emakumeen beharrekiko egokitzapen-maila.
- Emakumeek espazio publikoetan sentitzen duten segurtasuna edo segurtasun eza: hautemandako segurtasun-maila, benetako segurtasun-maila.

# HELBURU ZEHATZAK

---

Hirigintza-plangintzari eragiten dioten antolamendu-baliabide nagusiak baloratzea genero-ikuspegia zein neurritan kontuan hartzen duten ikusteko.

---

Analisiaren lau dimentsioei buruz eskuragarri dauden datu kuantitatiboak aztertzea: bigarren mailako iturriak eta TIM (Tokiko Inklusibitate Maila) galdetegia.

---

Udaleko langileak inplikatzeko formakuntza, ekintza eta partaidetza prozesu batean.

---

Udalerriko emakumeak inplikatzeko formakuntza, ekintza eta partaidetza prozesu batean.

---

Hiri-espazioa eraldatzeko neurri zehatzak proposatzea eta HAPO idazteko gomendioak jasotzea.

# IKERKETA-METODOLOGIA

1. Projektua prestatu.  
Hasierako bilerak.  
Hasi aurretik dokumentazioa jaso.

2. Aurrekariak aztertu:  
Hirigintza eta genero ikerketak eta politikak berrikusi.  
Udalaren informazioa berrikusi.

3. Ikerketa, ekintza eta partaidetza udaleko langileekin.  
Formakuntza: 7 parte-hartzaile.  
Tokiko Inklusibitate Mailari buruzko galdetegia.  
Elkarrizketak udal langileekin: 7.

4. Formakuntza, ekintza eta partaidetza udalerriko emakumeekin.  
Elkarrizketak: 24.  
Hirigintza inklusiboari buruzko mintegiak eta tailerrak. 15 parte-hartzaile.

5. Datuak aztertu eta txostena egin.  
Neuriei eta grazoei buruzko fitxak idatzi.

## 1. UDALERRI EREDUA ETA ESPAZIO PUBLIKOA

TRINKOTASUNA ETA ERABILERAK UZTARTZEA

ESPAZIO PUBLIKOA

OINEZKOENTZAKO KALEAK ETA IBILBIDEAK, ESPAZIO PUBLIKOAREN ETA SEINALEEN KALITATEA ETA MANTENTZEA

UDALERRIKO HIRI-ALTZARIAK ETA EGOTEKO LEKUAK

ESPAZIO PUBLIKOAREN ALORREKO UDAL KUDEAKETA

## 2. EGUNEROKO BIZITZARAKO EKIPAMENDUAK ETA AZPIEGITURAK

HEZKUNTZARAKO EKIPAMENDUAK

GIZARTE- ETA OSASUN-ZERBITZUETARAKO EKIPAMENDUAK

KULTURA-EKIPAMENDUAK

KIROL-EKIPAMENDUAK

## 3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOBIDE PUBLIKOAK

## 4. HAUTEMANDAKO SEGURTASUNA

# 1. UDALERRI EREDUA

## 1.1. TRINKOTASUNA ETA ERABILERAK UZTARTZEA

Industrializazio-prozesuaren eta eskualdearen ezaugarrien ondoriozko eragileak..

- **Industriaguneen inguruan eraikitako udalerria**
- **Haranaren eremuko aldapetara egokitua**
  - **Hazkunde hedakorra**

Azken hamarkadetan hutsuneak betetzea eta udalerría antolatzea izan dira hirigintzaren helburuak.

Hala eta guztiz ere, **hiri-erabileren kopuru handi batek bizitegi-erabilera besterik ez du**, zenbait duela gutxi ezarri diren arren.



Badira eremu degradatuak

Ahalegin handia egin da **degradatutako eremuak hobetzeko**, -Hobetu herria-.

Esku-hartze integrala behar duten eremuen lokalizazio teknikorako prozesua egin da.

**Larraño auzoak** irisgarritasun eta urbanizazio arazo handiak ditu, eta gainera, gizonezko baino askoz emakume gehiago dituen errolda-barrufietako bat da. (Hobekuntza-proiektua lizitazio-fasean dago).



Garapen Agentziak udalerriko merkataritza bultzatzeko ahalegina egin du; horretarako, saltokien sorrera sustatu du (ekintzaileentzako diru-laguntzen bitartez), eta baita horien jarraipena eta aholkularitza egin ere.

Ildo horretatik lanean jarraitu behar da; izan ere, erabilerak uztartzea dakar, eta era horretan, gertuko saltokiak izango dira Laudioko auzoetan. Lehenago aipatu dugun moduan, oinarritzko zerbitzuak izateak emakumeek euren eginbeharrak eratzasun handiagoz gauzatea ekar lezake.

Auzoetako askok ez dute beharrezko zerbitzu-azpiegiturarik, eta bertako biztanleek Laudioko erdigunera jo behar dute; ondorioz, auzo horietako pertsonak auzotik atera behar dute eguneroko eginbeharrak gauzatzeko.

1. neurria. Egun dagoen hiri-bilbeari jarraipena eman: hutsik geratzen diren industria-lursailak birmoldatu eta bizitegi-guneak antolatu.

2. neurria. Bizitegi-eraikinen beheko solairuetan lokalak egotea sustatu.

3. neurria. Etxebizitza-blokeetarako 100 metroko gertutasun/irisgarritasun estandarra sortu, elikagai-dendetarako, oinarrizko ekipamenduetarako, parke edo espazio publikoetarako eta garraiobide publikoetarako. Udalerri osoan ezarri, baina, bereziki, ezarpen berriak izango dituzten eremuetan edo hiri-berroneratze eremuetan.

4. neurria. HAPO berrikustean parte-hartze prozesuak abian jarri, genero-ikuspegia jorratzeko.

5. neurria. Erabilera industrialaren eta sektore tertziariokoaren bateragarritasuna aztertu erabilerak uztartzea bultzatzeko.

# 1. UDALERRI EREDUA:

## 1.2. ESPAZIO PUBLIKOAREN GAITASUN PUBLIKOA

### Eremu berde kopuru egokia

Eremu berde naturalak hiri-bilbetik hurbil.  
Lamuza parkea erdigunean dago, irisgarria da eta zabala.  
Nerbioiko Parke Lineala egiteko lanak.

**Hiritarrek oso positiboki baloratu dituzte.** Uste dute eremu berde nahikoa dagoela, ondo zainduta daudela eta udalak egindako ahalegina

**Arlo hau indargunea da, ez du hobekuntza handirik behar**



### Plazak eta harremanetarako guneak

Inklusibitate printzipioa betetzeko, egoteko guneak sortzen ari dira udalerriko auzoetan; era horretan, sozializazioa sustatuko da, eta baita zaintza-lanetan lagungarri izan daitezkeen sareak ere.

Hiritarrek positiboki baloratu dute udalaren esku-hartzea, eta bereziki erdigunean egin diren eraberritze-lanak –Aldai plaza-.

Latorro eta Gardea auzoetan oraindik beharrak daudela adierazi dute, baina ez dago gabezia handirik. Estalitako gune gehiago behar dira.

Eremuen antolamendua egokia da. Dena den, ondo legoke udalerrian gune estali gehiago izatea, jendea espazio publikora hurbil dadin, eguraldia gorabehera.



### Haurrentzako jolasguneak

Ez da ekipamendu berriak jartzeko beharrik ikusi, baina dauden ekipamendu-motak berrikusi beharko lirateke balizko erabiltzaileen adina kontuan hartuta.

Parte-hartzaileek uste dute parke gehienetan ez dela bereizketarik egiten eta gehienak haur txikientzat direla egokiak; haur helduagoentzako eta nerabeentzako, aldiz, jolasgune gutxiago daude.

Kalitatea eta kantitatea egokia da, baina adinaren arabera egokitzapena egin beharko lirateke. Estalitako jolasgune gehiago beharko lirateke.



6. neurria. Babestutako espazio publikoa sortzen jarraitu.

7. neurria. Adinaren araberako haurrentzako jolasguneak jarri.

# 1. UDALERRI EREDUA:

## 1.3. OINEZKOENTZAKO KALEAK ETA IBILBIDEAK.

### Kaleen eta oinezkoentzako guneen inklusibitatea

Oinezkoentzako kaleak eta ibilbideak berritzeko prozesu garrantzitsua.

**Espalioen behar**teen irisgarritasuna hobetu da eta **elementu mekaniko**ak jarri dira.

**Tren-geltokian** berriki egindako lanek **Latorro auzoaren irisgarritasuna hobetu** dute.

**Udalak arlo honetan egindako lanaren balorazio positiboa.** Oinezkoentzako espazioaren garrantzia identifikatzea falta da

Auzoen arteko loturretan lan egin behar da, oinezkoentzako ibilbideak sortuz, bereziki garraiobide-egiturak oztopo diren lekuetan.

Ordenantza erregulatzaille bat idatzi behar da seinaleei buruz, bereziki ekipamendu publikoen senaleei buruz.



### Ibilgailu pribatuentzako eremuak

Inklusibitate printzipioa betetzen ari da; besteak beste honako neurri hauek hartu dira:

Udalaren **lurpeko aparkalekua** eraiki.

Erdigunearen zafi bat **oinezkoentzako** bihurtu.

**Espalioen zabalera handitu.**

Herritarrak ez dira ohartzen arlo honetan egin beharreko lanaz, zuzenean haiei eragiten ez badie behintzat.

Positibiko baloratu dute egindako lana. Dena den, beharrezkoa da lanean jarraitzea eta herritarrak kontzientziatzea.



### Ingurunearen garbitasuna eta mantentze-lanak. Konponketak. Harmonia arkitektonikoa.

Herritarrak oso positiboki baloratzen dute espazio publikoaren garbitasuna eta mantentze-egoera.

Udala konponketak egiteko prest agertzea positibotzat jotzen dute, baina lauzadura zaindu behar du, bereziki periferian

Udalerriko arkitekturaren garapenaren balorazio positiboa, gehiago zaindu behar den arren.

8. neurria. Oinezkoentzako ibilbideak hobetzea eta auzoen arteko ibilbide berriak sortu.




9. neurria. Hirigintza-araudian kaleen diseinuari eta oinezkoentzako ibilbideei buruzko irizpide orokorrak jaso.

10. neurria. Oinezkoentzako berariazko seinaleak sortu..

11. neurria. Eremuak oinezkoentzako bihurtzearen onuren inguruko kontzientziazioa sustatzeko herritarren parte-hartze prozesuak abian jarri.

# 1. UDALERRI EREDUA:

## 1.4. HIRI-ALTZARIAK



12. neurria. Aldai plazako hiri-altzariak hobetu.

13. neurria. Komun publikoak jarri.

14. neurria. Haurren zaintzarekin zerikusia duten egitekoak gauzatzeko guneak kokatu espazio publikoan.

15. neurria. Kaleetako argiztapenari buruzko irizpideak (argiztatze-guneak berritzen ari dira eta gune berriak jartzen).


# 1. UDALERRI EREDUA

## 1.5. UDALAREN KUDEAKETA

### Lantaldearen diziplina aniztasuna.

Erantzukizuna duen arloan diziplina aniztasuna dago. Espazio publikoari buruzko proiektuak idazteko askotariko diziplinetako adituek osatutako taldeak eskatzea egokia da.

Garrantzitsua da, halaber, proiektuek genero-ikuspegia kontuan hartzea, eta, behin obrak eginda, balorazio-prozesuak egitea eta diseinatutako espazioek hasierako asmoak betetzen dituztela egiaztatzea.



### Herritarren parte-hartzea

Hirigintza arloan Laudioko udalak egiten dituen herritarren parte-hartze prozesuak eredu dira lurralde osoan eta baita EAEn ere. Jardunbide egokiak dira Auzo Batzarak, inkestak edota herritarren eskaerei erantzuteko udalak egiten duen kudeaketa gardena.

Funtsezkoa da prozesu horietan genero-ikuspegia kontuan hartzea, parte-hartze parekidea lortzeko eta udalerrin inklusiboa izateko elementu estrategikoen inguruko eztabaidak sor daitezen.

16. neurria. Hirigintza-diseinuko proiektuetan genero-ikuspegia duten hirigintza-adituek parte har dezatela.

17. neurria. Genero-ikuspegia kontuan hartzen duten parte-hartze prozesuak.

## 1. UDALERRI EREDUA ETA ESPAZIO PUBLIKOA

TRINKOTASUNA ETA ERABILERAK UZTARTZEA

ESPAZIO PUBLIKOA

OINEZKOENTZAKO KALEAK ETA IBILBIDEAK,  
ESPAZIO PUBLIKOAREN ETA SEINALEEN KALITATEA  
ETA MANTENTZEA

UDALERRIKO HIRI-ALTZARIAK ETA EGOTEKO  
LEKUAK

ESPAZIO PUBLIKOAREN ALORREKO UDAL  
KUDEAKETA

## 2. EGUNEROKO BIZITZARAKO EKIPAMENDUAK ETA AZPIEGITURAK

HEZKUNTZARAKO EKIPAMENDUAK

GIZARTE- ETA OSASUN-ZERBITZUETARAKO  
EKIPAMENDUAK

KULTURA-EKIPAMENDUAK

KIROL-EKIPAMENDUAK

## 3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOBIDE PUBLIKOAK

## 4. HAUTEMANDAKO SEGURTASUNA



## 2. EKIPAMENDUAK:

### 2.1. HEZKUNTZARAKO EKIPAMENDUAK

#### Haurreskolak

Matxintxu zabaldu denez gero, eskaerari erantzuteko ratioa eskualdeko gainontzeko udalerrien antzekoa da, baina EAEkoa baino txikiagoa.

Aretan Haurreskola zabaltzeko lanean jarraitzea komeni da, lurraldearen antolamendua inklusiboa izan dadin, herritarrek hala eskatzen dutelako eta eskaerei erantzuteko ratioak hobetzeko.

#### Ikastetxeak

Ikastetxeen mantentze- eta zaintza-lanen balorazio positiboa; izan ere, Udalak urtero eskatzen dio finantzazioa Eri gastu horiek (hobekuntza-, mantentze- eta egokitzapen-lanak) partekatzeko.

**Ikastetxe guztietara iristeko aldapak daude, eta zenbait kasutan ikastetxeak urruti daunez gero (bereziki Ikastolaren kasuan) eta udalerrian ez dagoenez eskola-garraio zerbitzurik, zenbaitetan zaila gerta daiteke adin txikikoei eskolara laguntzea.**

Udal inkestaren bitartez jasotako en arabera, zenbait ikastetxetan irisgarritasun-arazoak daude; esaterako, Latorron, espaloia eskolaraino luzatu beharra dago, eta Goikoganen, pasabideak egin beharko lirarteke eskolara errazago iritsi ahal izateko.

Zure Laudion egiteke daude inklusibitatea lortzeko oso garrantzitsuak diren bi esku-hartze. Aretako eskolako kirolgunea hobetu beharko litzateke, eta, bide batez, genero-ikuspegitik espazioa nola erabiltzen den azter liteke, eta estalitako institutu-zatia Lamuza plazatik ireki liteke (hainbat saiakera egin dira, baina ez da esperotako emaitzarik lortu).

18. neurria. Zainketetarako azpiegiturak definitu HAPOn.

19. neurria. Ikastetxeen beharrak zein diren jakiteko parte-hartze prozesuak gauzatu.

20. neurria. Ikastetxeetako irisgarritasuna hobetu.

## 2. EKIPAMENDUAK

### 2.2. GIZARTE- ETA OSASUN-ZERBITZUETARAKO EKIPAMENDUAK

#### Gizarte-zerbitzuetarakoak: adinekoentzako zentroak

Herritarrek hainbat eskaera dituzte:

Menpekotasun-egoeran dauden adinekoentzako egoitza eta eguneko zentro eskaintza handitzea.

Babespeko pisuak egitea. Babespeko pisuei dagokienez, kontuan hartu behar da Audio ez dagoela behartuta lurzorua gordetzera zuzkidura-bizitokitarako, 20.000 biztanle baino gutxiagoko udalerrira delako. Dena den, kopuru horretatik oso hurbil dagoenez, era horretako ekipamenduak izateak adineko pertsonen autonomia sustatuko luke eta zaintze-lanak gauzatzen dituzten pertsonentzat laguntza handia litzateke a priori.

Jantoki komunitario kolaboratiboak, elkartzeko eta zahartzaro aktiborako ekintzak (udalekuak edo udan hondartzara joateko autobusa) dinamizatzeke gune izan daitezke.

Hobekuntza izan da, adinekoentzako egoitza zabaldu baita, eta dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako ekipamenduak jarri baitira.

#### Gizarte-zerbitzuetarakoak: gazteentzako zerbitzuak

Bada Gazteleku bat, baina eskatzaileen adina 10-11 urtekoa izaten da gehienez ere, beste leku batzuetan gertatzen den moduan. Gaztelekuak eskaintza zabaldu beharko luke nerabezaro aurreko etapara ere (baloratzen ari gara).

15 urteik gorakoek nahiago izaten dituzte biltzeko gune autogestionatuak: lonjak, 30 bat daudela kalkulatu dugu, eta gehienetan ez dago arazorik. Udalak gomendio-gida bat sortzeko asmoa du. Kolektibo honi kale-hezitzaileekin harremanetan egoteko aukera edo lonjetan izaten diren rol-banaketen aurkako aisiladi-eskaintza egitea aztertzen ari gara.

Horrez gain, Gaztetxea dugu, Gazte Asanbladak kudeatua; bertan neska-mutilek berdintasunez hartzen dute parte.

Zure Laudion, Aretan, gazteentzako zentro bat zabalduko da; izan ere, jubilatuentzako zentro berria ireki denez gero, lokal bat hutsik geratu da.

#### Osasun-zerbitzuak

Beste osasun-zentro bat behar da eta zerbitzu gehiago eskaini behar dira.

Aretan jar litekeela uste dugu..

21. neurria. Eguneko zentroetan eta egoitzetan beharrei erantzuteko adina leku dagoen aztertu.

22. neurria. Adinekoentzako eguneko zentroa egin.

23. neurria. Adinekoentzako babespeko-pisuak izan..

24. neurria. Jantoki komunitarioak izan.


25. neurria. Adinekoentzako ekintzak dinamizatu.

26. neurria. Gaztelekuaren eskaintza zabaldu. (Aztertzen ari gara).

27. neurria. Osasun-zentro berria egin. (Eusko Jaurlaritzaren eskumena).

## 2. EKIPAMENDUAK

### 2.3. KULTURA-EKIPAMENDUAK



28. neurria. Auzoetan kultura-ekipamenduak egin.

29. neurria. Kultura-ekipamenduen ordutegi-eskaintzaren kudeaketa hobetu.

30. neurria. Ekipamenduetan umeei pardelak aldatzekoak izan.

## 2. EKIPAMENDUAK:

### 2.4. KIROL-EKIPAMENDUAK

#### La Granja polikiroldegia

Lamuza polikiroldegiaren balorazio negatiboa: espazioa ez dator bat Laudioaren beharrekin, ez tamainari dagokionez –eskainitako leku kopurua txikiegia da–, ez eta instalazioen mantentzeari eta eguneratzeari dagokionez ere..

Zenbait pertsonak, gainera, uste du zerbitzuaren kalitatea ere ez dela egokia.

Irisingarritasun-arazoak ere aipatu dituzte. Ekipamendua erdialdetik urrun dago eta eskailerak edo aldapak erabili behar dira iristeko; beraz, gurpil-aulkian doazen pertsonak, mugikortasuna mugatuta dutenek edota umeentzako gurditxoekin doazenek zailtasun handiak dituzte iristeko, baldin eta autoz ez badauz.



#### Ellakuriko igerilekuak

Emakumeek oso balorazio positiboa egin dute: ariketa fisikoa egin daiteke, baina haurrekin egoteko aisialdi-gunea ere bada.

Hobetu beharrekoen artean, honako hauek aipatu dituzte: ordutegia luzatzea eta garraiobide publikoa jartzea irisingarriagoa izan dadin.



#### Ekipamenduen antolaketa

Adierazi dute, oro har, kirol-ekipamenduen antolakuntzak ez duela kontuan hartzen genero-ikuspegia.

HAPOren arabera, kirol-ekipamendu nahikoa dago, nahiz eta emakumeek aurkakoa adierazi.

Egindako azken inbertsioak eremu maskulinizatuetan gastatu dira, esaterako, Ellakuriko zelaian.

31. neurria. Erabilera anitzerako guneak gaitu gimnasia- eta kirol-ariketa Laudioko auzo guztietan egin ahal izatea ahalbidetzeko.

32. neurria. Laudioko emakumeen kirol-jarduerari buruzko azterketa egin eta egun dauden ekipamenduak birmoldatzean edo berriak egitean ondorioak kontuan hartu.

33. neurria. Udan Ellakuriko igerilekuetara joateko garraio publikoa jartzeko ekimena berraztertu.



## 1. UDALERRI EREDUA ETA ESPAZIO PUBLIKOA

TRINKOTASUNA ETA ERABILERAK UZTARTZEA

ESPAZIO PUBLIKOA

OINEZKOENTZAKO KALEAK ETA IBILBIDEAK, ESPAZIO PUBLIKOAREN ETA SEINALEEN KALITATEA ETA MANTENTZEA

UDALERRIKO HIRI-ALTZARIAK ETA EGOTEKO LEKUAK

ESPAZIO PUBLIKOAREN ALORREKO UDAL KUDEAKETA

## 2. EGUNEROKO BIZITZARAKO EKIPAMENDUAK ETA AZPIEGITURAK

HEZKUNTZARAKO EKIPAMENDUAK

GIZARTE- ETA OSASUN-ZERBITZUETARAKO EKIPAMENDUAK

KULTURA-EKIPAMENDUAK

KIROL-EKIPAMENDUAK

## 3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOBIDE PUBLIKOAK

## 4. HAUTEMANDAKO SEGURTASUNA


### 3. GARRAIOBIDEAK:

#### Mugikortasun-plana

Mugikortasunari buruzko plan bat oso baliabide eraginkorra da garraio eta komunikazio arloan. Audioren egoera zein den baloratu ahal izateko.

Genero-ikuspegia kontuan hartzearen garrantzia: sexuaren araberako datuak izatea jarduera motei buruz, Audioren eta udalaz gaindiko arloetan, desplazamenduen distantziak eta denborak aztertzeke, emakumeek eguneroko eginbeharrak gauzatzeko behar duten denbora murrizteko.

Parte-hartze prozesua gauzatu, ikusteko beharrezkoa den udalerriri barruko garraio-zerbitzua jartzea. Audioko auzoak erdigunearekin lotzeko, eta aztertzeke emakumeen beharrei erantzuteke zein izan daitezkeen ibilbide eta maiztasun egokiak.



#### Garraioa hobetzeko emakumeen proposamenak

Auzoetan bizi direnek zailtasunak dituzte udalerriko ekipamenduetara garraio publikoa erabili iristeko, bai garraiobideen ordutegiagatik, bai ibilbideengatik. Gainera, askok ez dakite zein autobus-linea dauden eta ordutegiak zein diren. Ez dago gaueko garraiobide publiko zerbitzurik.

**Ez dago bidegorri-sarerik eta tarte batzuetan zoladura egoera txarrean dago.**

Beharrezkoa da ADIFI, beste behin ere, tren-geltokiek eta bagoiek beraien dituzten irisgarritasun-arazoen berri ematea eta nabarmentzea zein garrantzitsua den arazoa konpontzea, mugikortasun mugatua duten pertsonen garraiobide hau erabiltzea oztopatzen duelako eta, askotan, ezinezko egiten ere. (Horretan ari gara).

34. neurria. Genero-ikuspegia kontuan izan mugikortasun-plana egitean.

35. neurria. Bidegorri-sarea zabaldu eta estalitako bizikleta-aparkalekuak jarri.

36. neurria. Tren-zerbitzuaren irisgarritasuna hobetu.

## 1. UDALERRI EREDUA ETA ESPAZIO PUBLIKOA

TRINKOTASUNA ETA ERABILERAK UZTARTZEA

ESPAZIO PUBLIKOA

OINEZKOENTZAKO KALEAK ETA IBILBIDEAK, ESPAZIO PUBLIKOAREN ETA SEINALEEN KALITATEA ETA MANTENTZEA

UDALERRIKO HIRI-ALTZARIAK ETA EGOTEKO LEKUAK

ESPAZIO PUBLIKOAREN ALORREKO UDAL KUDEAKETA

## 2. EGUNEROKO BIZITZARAKO EKIPAMENDUAK ETA AZPIEGITURAK

HEZKUNTZARAKO EKIPAMENDUAK

GIZARTE- ETA OSASUN-ZERBITZUETARAKO EKIPAMENDUAK

KULTURA-EKIPAMENDUAK

KIROL-EKIPAMENDUAK

## 3. MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOBIDE PUBLIKOAK

## 4. HAUTEMANDAKO SEGURTASUNA

# 4. HAUTEMANDAKO SEGURTASUNA

## Tunelak

Segurtasun falta sortu ohi duten faktorerik ohikoenak honako hauek izaten dira: tunelak, ingurune bakartuak, inguru ilunak edo argitasun gutxikoak eta ingurune degradatuak.

Horietako bat, Laudio erdialdeko Renferen geltokian dagoena, eraberritu egin dute, zabaldu, argiztatu eta orain ez du horrenbesteko segurtasun faltarik sortzen. Bestea, Zubiko Kurajo inguruan oinezkoentzako pasabidearen parean dagoena, nahiago izaten dute saihestu.

## Argiztapena

Argiztapenari dagokionez, Laudio, oro har, ondo argiztatutako udalerria dela uste dute, eta baita arlo horretan udal politikak hobetu direla ere; dena den, badirudi egoera hobea dela erdialdean periferian baino, argiztapen nahikorik ez duten zenbait guneren berri eman baitute.

Landaluze parkea:

Lamuza Parkea.

Larraño auzoa:

Gardea eta Areta arteko eremua:

Baltzalarin kalea

## Jendea ikusteko eta jendeak norbera ikusteko arazoak

Ikuste-kontrol urriko guneak, eraso bat saihestea eragozten dutenak:

Ikuspen txikia Eroski pareko aparkalekuan.

Ikuspen txikia merkatu-plazan arkupeak direla-eta.

Ikuspen falta anbulategitik hurbil dauden arkupeetan.

Ikuspen falta Latorroko arkupeetan.

Jendea ikusteko eta jendeak norbera ikusteko arazoek gune bakartuak sortzen dituzte, eta horietan segurtasun falta are handiagoa da, laguntza eskatzea oso zaila delako.

Gune bakartuak Laudio eta Amurrio lotzen dituen bidegorrian.

Gune bakartua Bidezarretan.

Gune bakartua eta aukerako biderik ez duena Larrañoko igogailuaren ondoko eskaileretan. (Argiztapena handitu da).

Gune bakartua eta lantegi hutsak Vitoria-Gasteiz kalean.

Guneak bakarturik egoteak, askotan, hiri-espazio horren degradazioa dakar, eta horrek areagotu egiten du segurtasun eza. Utzikeriaren seinale direnez, ez dira inguru atseginak izaten, eta ondorioz, saihestu egiten ditu jendeak eta gune ez-seguru bilakatzen dira. Gainera, erakundeen kontrol faltari egozten zaio errua; beraz, gizarte-kontrola falta da, bai formala, bai informala.

Baserria Gardean

Ostegieta plazako formakuntza-zentroa

Etxe hutsak edo degradatuak Aretan


37. neurria. Udalerriaren argiztapen-beharrei buruzko azterlana egin.

38. neurria. Segurtasun-elementuak jarri.

39. neurria. Hutsik edo erortzeaz dauden eraikinetan segurtasun-neurriak jarri..

40. neurria. Neskateka azterketan aipatutako leku ez-seguruak baloratu, zeuden arazoak kopondu ez badira.

# ONDORIOAK



## INDARGUNEAK

- Udalak hirigintza inklusiboaren printzipioak kontuan hartuta esku-hartzen du, eta herritarren balorazioa, oro har, oso positiboa da.
- Herritarrek udal-kudeaketan parte hartzen dute, eta alor horretan praktika egoki asko gauzatzen dira. Gainera, jendeak sentitzen du bere parte-hartzea ballagarria dela, eta bere eskaerei erantzuten dietela ikusten du.



## HOBETU BEHARREKOAK

- Inklusibitateaz ari garela, herentzia historiko zaila dugu, bai orografia dela-eta, bai inguruaren izaera industriala dela-eta.
- Hirigintza inklusiboa da, diziplina honen helburua azken garaian udalerri sozialagoak eta parekideagoak lortzea delako, baina genero-ikuspegia ez denez ia udal politikan txertatu (dirulaguntzetan, parte-hartze prozesuetan, kirol-politikan, gazte eta adinekoentzako esku-hartzeetan, mugikortasun-politikan), erronka handia da.

